



PLAZA_Co

Komunitatean proiektu irekiak garatzeko deialdia Convocatoria de proyectos colaborativos en comunidad

Nahi al zenuke komunitatean elkarlaneko proiektu edo prototipo bat garatu?

Medialab Tabakalerak elkarlaneko proiektuak herritarren ikuspegitik eta ikuspegi esperimentaletik garatzeko deialdia egin du. Deialdia kultura libre eta irekia sortzen lagunduko duten, ezagutza kolektiboa sustatuko duten, gobernantza-modu berriak planteatuko dituzten eta komunitateari herritarren ikuspegitik edo ikuspegi esperimentaletik interes komuneko arazoak konpontzeko aukera berriak eskainiko dizkioten proiektu edo prototipoei zuzenduta dago. Proiektuak MEDIALAB Tabakaleraren guneak eta tresnak erabiliz garatuko dira, eta gehienez 3.000 euroko aurrekontua izango dute.

1. AURKEZPENA

MEDIALAB Tabakalera herritarrentzat zabalik dagoen sorkuntzarako eta esperimentaziorako espazioa da, eta ezagutza, teknologia eta hainbat gune eskaintzen ditu ikaskuntza-prozesuak errazteko, ezagutza sortzeko, esperimentatzeko eta proiektuak garatzeko.

MEDIALAB Tabakalerak kultura digitalean, diseinu irekian eta ezagutza partekatuan oinarritutako **PLAZA_Co** deialdia sustatzen du. Deialdiak herritarrei, elkarteei eta kolektiboek dei egiten die kultura ireki eta *maker* ingurune batean proiektu kolektiboak gara ditzaten, ezagutza sortzea, komunitateari laguntzea eta teknologiaren, artearen eta zientziaren arteko elkarreragin berriak aztertzea bilatuz, gizarte-erronkei aurre egiteko.

Deialdi honen bidez, proiektu kolektiboak sortzea nahi da, prototipo-fasea amaitu ondoren MEDIALABen komunitateko talde gisa ere eratu ahal izateko.



Talde berri horiek **Lantalde Irekiak** izenekoen parte izateko aukera izango dute, MEDIALAB Tabakaleraren laborategian egoten diren eta laborategia modu autonomoan eta erantzunkidean erabiltzen duten komunitateak sustatzeko metodologia izanik. Talde operatiboak dira, gai jakinei buruzko ikerketa modu partekatuan eta herritarren ikuspegitik aktibatzen dutenak, eta beren jarduera MEDIALAB Tabakaleran modu auto antolatuan egin dezaketenak. Zentroko instalazioak eta tresnak erabiliz proiektuak proposatzeaz eta egiteaz gainera, taldeek ezagutza sortzen dute eta euren lan-ildoarekin lotutako ekintza-programa bat antolatu dezakete MEDIALAB Tabakalerarekin hitz eginda.

Ekimen honek tokiko sareak eta komunitateak sustatzen eta elikatzen ditu, gizartea eraldatzeko oinarritzko elementu gisa.

2. XEDEA

Deialdiak ezagutza kolektiboa sustatuko duten, herritarren ikuspegitik komunitateari onura ekarriko dioten eta interes komunekoa arazoak konpontzeko irtenbide berriekin esperimentatuko duten proposamenak aurkeztera gonbidatzen du.

Deialdi honen xedea da prototipo-proiektuak edo -ideiak sortzea, kultura digitalaren eta ezagutzak nahastearen logiketatik abiatuta herritarren intereseko alderdiei, arazoei edo gaiei aurre egiteko.

Era honetako proiektuak bultzatu nahi dira:

- **Elkarlanekoak:** Proiektuak beste pertsona batzuekin batera egin behar dira, eta hasierako ideia garatzen, zehazten eta, behar bada, aldatzen lagunduko duten parte-hartzaile berriak hartzeko prest egon behar dute.
- **Esperimentalak:** Proiektuek berrikuntza, ikaskuntza eta ezagutza sortu behar dituzte, eta inplikaturako kolaboratzaileen proba, errorea eta jakintzen nahasketa ahalbidetu behar dute.
- **Irekiak:** Prozesuak eta emaitzak partekatu behar dira, beste batzuek ezagutu, kontsultatu, kopiatu edo aldatu ahal izan ditzaten, euren komunitateen edo testuinguruen beharren arabera.



- **Inklusiboak:** Proiektuek aukera eman behar dute profil ezberdinetako pertsonen parte hartzeko, prozesua aberastuko duten ikuspegi ezberdinak emanez.
- **Irabazi-asmorik gabekoak:** Deialdi honek bere gain hartutako prototipatze-fasean, proiektuen helburua ez da izango irabazi ekonomiko pribatua lortzea, baizik eta pertsona guztientzat kultura libre eta irekia sortzea.

MEDIALAB Tabakaleraren egungo Lantalde irekien lan-ildoak honako hauek dira:

1. Herri-zientzia. Zientziaren, ingurumenaren, astronomiaren, biologiaren edo arlo soziosanitarioaren eremuko esperimentuekin edo dibulgazioarekin lotutako proiektuak.

2. Diseinu irekia eta fabrikazio digitala. MEDIALAB Tabakalerako oinarrizko lan-ildoak da, eta *maker* praktikak edo fabrikazio digitaleko tresnen erabilerarekin eta horien komunitate irekiekin lotutakoak biltzen ditu. Ildo honek diseinu irekiari, industrialari eta arkitektonikoari edo altzarien diseinuari lotutako guztia ere barne hartzen du.

3. Datuen kultura, bistaratzea, gardentasuna, parte-hartzearen teknologiak. Informazioaren tratamenduari, datuak irekitzearekin, parte-hartze digitalarekin eta datuen kulturarekin zerikusia duen lan-ildoak da.

4. Hezkuntza eta teknologiak. Ildo honetan, helburu hezitzailea eta osagai teknologikoa duten proiektuak garatzen dira. Ikasteko jolas-dinamikak, aplikazioak, jokoak, kitak edo teknologien erabilera kontzientea sustatzen duten ekimenak barne hartzen dituzten proiektuak izan daitezke.

5. Jasangarritasuna eta elikadura jasangarria. Sorkuntza eta diseinua ekoizpen eta kontsumo-modu alternatiboaren edo ekonomia zirkularren zerbitzura jartzearen aldeko apustua egiten duten edo elkarbizitzarako, elikatze edo klimaren erronkari aurre egiteko modu jasangarriagoak pentsatzeko eta praktikan jartzeko proiektuak dira.



6. Esperimentazioa eta sorkuntza: Artea, Zientzia, Teknologia eta Gizartea (AZTG) Ildo honek, diziplinen intersekzioan, artearekin, sorkuntzarekin eta esperimentazioarekin lotutako prozesuak biltzen ditu. Tabakaleraren helburuetako bat artearen, zientziaren, teknologiaren eta gizartearen arteko topagune liratekeen proiektuak sustatzea da, erronka sozialei aurre egiteko diziplina arteko esperimentazioa landuz.

ADIBIDEAK:

Proiektuak era askotakoak izan daitezke: hiri-altzariak eraikitzea, espazio publikoak seguruagoak izan daitezen; herri-zientziako tresnak sortzea hirietan biodibertsitatea monitorizatzeko; auzoetako memoriak berreskuratzeko estrategiak; edo aplikazio eta plataforma teknologikoak garatzea eguneroko zereginak edo hezitzaileak errazteko. Hona hemen Lantalde irekiek egindako proiektuen adibide batzuk: ingurumen-sentsoreak, astronomian erabiltzeko tresnak, laborategian erabiltzeko tresnak (biohacking DIY), hiri-altzariak, datu hiritarrak bistaratzea, robotika eta STEAM ikasteko kitak sortzea; material hezitzaileak eta didaktikoak; liburu hedatuak; moda eta osagarri jasangarriak; soinu-sintetizagailuak; txalaparta sintetizatua; gainazaletarako bideomappinga; domo interaktiboa; hackeatutako sukaldeko tresnak...

3. HAUTAGAIK - ESKABIDEA

- Eskatzaileek gutxienez 18 urte beteta izan beharko dituzte deialdiaren itxieradatan.

- Eskatzaile bakoitzak proiektu batekin parte hartu ahal izango du, eta gutxienez bi sustatzaile izango ditu*. Deialdira hainbat pertsona fisiko edo juridiko elkarrekin aurkeztu ahal izango dira, haien artean inolako harremanik formalizatzea eskatu gabe. Talde bakoitzak hiru sustatzaile izan ditzake gehienez, eta nahi duen parte-hartzaile edo kolaboratzaile kopurua.

*Oharra:

Pertsona sustatzaileak: deialdian parte hartzeko eskaera egiten duten eta, proiektua hautatzen bada, taldearen jarduera koordinatzeaz arduratzen diren



pertsonak dira. Gainera, MEDIALAB Tabakalerarekin solaskide izateko izendatutako pertsonak izango dira. Proiektu batean gehienez ere hiru sustatzaile izendatu daitezke.

Kolaboratzaileak edo parte-hartzaileak: taldean laguntzeko edo ikasteko interesa duen edonork bat egin dezake hautatutako proiektuekin, bere ezagutzak eta ideiak eskainiz. Proiektua deialdira aurkezten denetik izan daitezke bertako partaide, edo geroago sar daitezke, proiektuen izaera irekia dela eta.

Kolaboratzaileentzako deialdia: proiektuak aukeratzen direnean, proiektuekin bat egin nahi duten kolaboratzaile berrientzako deialdia egingo da. Deialdia MEDIALAB Tabakalerak jakinaraziko du, eta aurkezpen-jardunaldi informatibo bat egingo da, proiektu bakoitza ezagutzeko eta horietan kolaboratzaileak sartzeko.

4. HAUTAKETA-BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Balorazio-batzordea:

MEDIALAB Tabakalerak batzorde misto bat osatuko du proiektuak irizpide hauetan oinarrituta baloratzeko:

Proiektuak baloratzeaz arduratuko den batzordea osatuko dute MEDIALABeko arduradunak (edo hark eskuordetzen duen pertsonak), laborategiko koordinatzaileak eta sektoreari lotutako eragile batek.

Irizpideak:

Proiektuak 2. puntuan (Xedea) adierazitako gaiekin eta printzipioekin bat etorri baloratuko dituzte:

- Berritasuna eta originaltasuna. Proposamenak argitaratu gabeak izatea baloratuko da, baina kontuan izango dira aurretik sortutako proiektuak baldin eta garatzeko proposamena koherentea bada.
- Proposamenaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia.



- Bideragarritasuna eta eskaintzen diren baliabideetara zein mailatan egokitzen den.
- Gerora begira, publikoarekin elkarrizketak eta elkarreraginak sortzeko ahalmena.
- Tokiko testuinguruarekiko lotura, edo testuinguru horretan eragina izatea.

Proiektuak aukeratzean, hautatutako gaiak dibertsifikatzeko ahalegina egingo da.

Proposamenen artean zalantza eginez gero, 2. puntuan (Xedea) aipatutako lanildoetako eta irizpideetako bat edo batzuk jorratzen dituzten proiektuei emango zaie lehentasuna.

Kasu horretan, honako alderdi hauei erreparatuko zaie:

- Jasangarritasuna eta elikadura jasangarria lantzen duten proiektuak izatea.
- Baloratuko da proposamenek kultura digitalarekin duten lotura, teknologiarekin lotutako sorkuntzak, ekoizpenak edo adierazpen artistiko, kultural edo sozialak barne hartuta; teknologien erabilerarekin esperimentatzen duten prototipoak izatea, sormen-adierazpenerako, euskarri berriak probatzeko, prozesuak aldatu edo sinplifikatzeko, irisgarri bihurtzeko eta aplikazioak eguneroko testuinguruetan bilatzeko.
- Proiektua definitzean edo gauzatzeko proposamenean **gobernantza-modu berriak** kontuan hartzen dituzten proiektuak izatea, bai prozesuari berari dagokionez, bai erakundearekin duen harremanari dagokionez.
 - Proposamenean parte hartzeko eredua: laguntza-beharrak, lankidetzak proiektutik kanpoko eragileekin, ekoizpena eta kudeaketa partekatuzko moduak, etab.



- Gobernantza-eredua: adituen edo erakundeen eta herritarren arteko lankidetzatza-logika, erakundearekin batera ekoiztea edo boterea lagatzea, aurrekontuaren kudeaketa partekatua, etab.

5. PROIEKTUA GARATZEKO KONPROMISOAK ETA EKARPENAK

1. 3.000 eurora arteko hiru ekarpen (zergak eta atxikipenak kanpo) ekoizpen gisa:

- Gauzatzeko formula proiektuaren aurrekontu-proposamenaren arabera erabakiko da, honako hauek izan daitezke:
 - Zenbatekoa edo zenbatekoaren zati bat faktura bidez entregatuta eta memoria ekonomikoa entregatu ondoren (fakturatzeko legezko figurarik badago).
 - MEDIALAB Tabakalerak kudeatuta proiektuarekin lankidetzan.
- Gastuek, gehienez ere, % 40ko ordainsaria jaso ahal izango dute parte-hartzaileentzat. Esate baterako, lantalde bat garatuz gero, bileretara joateko dieta gisa edo, zerbitzu adituak behar izanez gero, horien lanagatik.
- Gastu guztiak materialetara eta zerbitzuetara bideratu ahal izango dira.

2. MEDIALAB Tabakalerako lantaldearen baliabide teknikoak eta laguntza teknikoak, beharren eta prestasunaren arabera.

3. MEDIALAB Tabakalerako taldeak garatu behar den proiektuan lagunduko du, eta Tabakaleraren testuinguruarekin harremana ezartzeko lana egingo du.

MEDIALAB Tabakaleraren KONPROMISOAK:

- Proiektuen garapenean laguntzea eta bitartekotza egitea, deialdiko irizpideen arabera: elkarlanekoa, esperimentalak, irekia, inklusiboa eta irabazi-asmorik gabekoa.



- Formatuak eta azpiegitura hornitzea kolaboratzaileen deialdia egiteko eta lantaldeak osatzeko.
- Lan-saioetarako espazioak, azpiegiturak, ekipoak eta tresnak ematea.
- Hautatutako proiektuetarako laguntza ekonomikoak kudeatzea.
- Prozesuak eta emaitzak dokumentatzeko eta partekatzeko metodologiak eta tresnak eskaintzea, Creative Commons CC BY-SA 4.0 lizentzia irekiarekin.
- Kultura librea sustatzea eta proiektuaren prozesuak eta emaitzak publikoki partekatzea.
- Parte hartu izana egiaztatzen duten agiriak ematea hala eskatzen dutenei.

ESKATZAILEEN KONPROMISOAK:

- Proiektua deialdiaren irizpideen arabera garatzea.
- Kolaboratzaileen deialdian parte hartzea, halakorik balego.
- Lan-saioetara eta horiekin lotutako jardueretara joatea.
- Laguntza ekonomikoa proiektuko materialetarako erabiltzea, eta eraginkortasunez eta taldearen adostasunarekin erabiltzea.
- Ekarpene ekonomikoa kolaboratzaileen esku uztea, proiektuarekin jarraitu ezin badute.
- Prozesuak eta emaitzak dokumentatzea eta partekatzea Creative Commons CC BY-SA 4.0 lizentzia irekiarekin.
- Errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko jarrera izatea.
- Parte-hartzaile guztiak aitortzea eta guztiei sinesgarritasuna ematea.
- Prozesuak eta emaitzak MEDIALAB Tabakaleraren formatuen arabera aurkeztea.
- MEDIALAB Tabakaleraren instalazioak eta ekipoak zaintzea.
- Bere osasunaren eta osotasunaren erantzukizuna bere gain hartzea, bai eta hirugarrenei egin ahal zaizkien kalteak ere.
- Parte-hartzea grabatzeko eta zabaltzeko baimena ematea.

* Konpromiso horiek betetzen ez badira, eta ez-betetze larria bada, ekarpena kendu edo atxiki ahal izango da, eta proiektua bertan behera utzi.



6. PROIEKTUAREN IRAUPENA

Proiektuen garapenak zortzi hilabetera arteko iraupena izango du: 2024ko azaroan hasi eta 2025ko uztailean amaituta. Lan-aldi espezifikoa hautatuen eta MEDIALAB Tabakaleraren artean adostuko da.

Proiektuaren garapenaren iraupena batzordearekin adostuko da, eta aldeek duten prestasunaren eta konpromisoen mende egongo da.

7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak jarraian adierazten diren konpromisoak onartzea dakar:

- Esleituta dagoen eskaera bat erretiratu behar bada, hautagaiek behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko dute.
- Adostutako egunetan behin eta berriz eta arrazoi justifikaturik gabe espazioan ez egoteak, kasu bakoitzean emandako laguntzak bertan behera uztea ekar dezake.
- Proiektua amaitzean, lantalde bakoitzak egonaldian egindako proiektuaren garapenari buruzko memoria labur bat aurkeztu beharko du.
- Proiektuaren garapena eta/edo haren inguruan sor daitezkeen jarduerak Tabakaleraren programazioan sartu ahal izango dira, betiere taldearekin adostuta.
- Tabakaleraren eta/edo MEDIALAB Tabakaleraren izenak sortutako piezen edo emaitzen kredituetan agertu beharko du.
- Creative Commons edo antzeko lizentzia libre eta irekiak erabiltzea baloratu eta sustatuko da.

Epeak:

- Deialdia **irailaren 9an, 12:00etan (UCT +2)** irekiko da.
- Aurkezteko epea: proposamenak **urriaren 11ko 12:00ak arte (UCT +2)** bidali ahal izango dira.
- Ebazpena argitaratzea: **urriak 18**



- Kolaboratzaileen deialdia: **azaroak 4**
- Proiektuak **azaroaren 21etik aurrera** garatuko dira, hitzartutako epean.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Izena emateko inprimakia, eremu guztiak beteta.

- Horrez gainera, eranskin bat aurkeztu beharko da proiektuaren azalpenarekin formatu digitalean edo PDF formatuan (gehienez 8 orri), honako informazio honekin:

1. **Harremanetarako datuak:** izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefonoa, jaiotza-data.

* Ordezkarri bakarra izendatuko da hautatutako proiektuaren solaskide gisa.

2. **CV eta biografia laburra.** Kolektibo bat bada, bai kolektiboarena bai parte-hartzaile bakoitzarena. Taldea osatu gabe badago, deialdia egin nahi zaien eta proiektuan parte hartzea nahi den pertsonen profilak.

3. **Proiektuaren azalpena eta proiektua gauzatzeko arrazoia,** garatzeko behar den gutxi gorabeherako iraupena eta hautagaitzak erabilgarri zenbat denbora duen adierazita (gehienez 500 hitz).

4. Proposamena garatzeko proposatzen den gutxi gorabeherako **lan-egutegia.**

5. **Txosten ekonomiko laburra:** beharko diren materialak, parte-hartzaileak edo proiektuak izan ditzakeen gastuak.

6. **Komunikazio-estrategiaren proposamena.** Gauzatzen den bitartean proiektua ilustratzen lagunduko duen material grafikoa edo beste material batzuk, sare sozialak, etab.

7. Sustatzaileen aurreko proiektuei buruzko **erreferentziak,** halakorik balego, edo beste testuinguru eta eragile batzuen antzeko proiektuei buruzkoak: estekak, webgunea, etab.



9. JABETZA INTELEKTUALA

Hautagai eta/edo parte-hartzaile guztiek, bai eta hautatutako onuradunek ere, bermatuko dute Tabakalerari, bai (i) eskabidearen esparruan bai (ii), hala badagokio, oinarri hauen xede diren baliabideez hornitutako proiektua gauzatzean, ematen dioten testu-dokumentazioa, grafikoa eta/edo ikus-entzunezkoa, originalak izango direla eta ez dutela hirugarrenen jabetza intelektualeko ezein eskubide urratuko. Ondorioz, Tabakaleraren eta/edo haren hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute hirugarrenek material horien inguruan jabetza intelektualari buruz planteatu ditzaketen erreklamazioen aurrean, eta erakunde horiei kalte-ordaina eman beharko diete kontzeptu horiei buruzko balizko erreklamazioetatik erator daitezkeen kalte-galera guztiengatik.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari, ematen dioten testu-dokumentazioa, grafikoa eta/edo ikus-entzunezkoa edozein euskarritan erabiltzeko, oinarri hauen xede diren zuzkidurak hedatzeko eta horiekin hornitutako proiektua gauzatzeko helburu bakarrarekin.

Aipatutako guztia, alde batera utzi gabe egile-eskubide moralak eta aipatutako testu-dokumentazioari, grafikoari eta/edo ikus-entzunezkoari dagozkien jabetza intelektualeko ondare-edukiaren eskubide guztien titularitatea, horiek onuradunei egokituko baitzaizkie aurrerantzean ere.

10. DATU PERTSONALEN BABESA

Hautagaiei eta/edo parte-hartzaileei jakinarazten zaie, oinarri hauek onartzean baimena ematen dutela Tabakalerak eskaera aurkeztean eman zaizkion datu pertsonalak eta, hautatuak izanez gero, oinarri hauen xede diren baliabideekin hornitutako proiektua gauzatzean ematen zaizkionak tratatzeko, eskaera izapidetu eta kudeatzeko helburuarekin, bai eta ematen zaizkion zuzkidurak gozatzeko eta, ondoren, horiekin hornitutako proiektua zabaltzeko helburuarekin ere.

Datu pertsonal horiek erakunde eta/edo organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta haiei komunikatzeko legezko betebeharra badago. Era



berean, eta hurrengo II. klausulan ezarritakoaren arabera, zuzkiduren onuradunen irudia eta izena hirugarrenei komunikatu ahal izango zaizkie, Tabakalerak oinarri hauen xede diren zuzkidurak hedatzeko eta horiekin hornitutako proiektuak gauzatzeko, edozein euskarritan, erabiltzen dituen komunikazio-sistemen bidez.

Testuinguru horretan, jasota geratzen da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela, eta, beraz, datu horiek emango ez balira, laguntza-eskabidea eta deialdian parte hartzeko aukera bertan behera geratuko liriatekeela.

Hautagaien eta/edo parte-hartzaileen datu pertsonalak hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, zuzkidurak ematea eta horiek erabiltzea kudeatzeko behar besteko denboran gordeko dira, bai eta Tabakaleraren legezko betebeharrak betetzeko behar den epe gehigarrian ere.

Nolanahi ere, hautagaiei eta/edo parte-hartzaileei, bai eta hautatutako onuradunei ere, jakinarazten zaie eskubidea dutela (i) bere datu pertsonaletan sartzea, datu pertsonalak zuzendu edo ezabatzea eta horien tratamendua eta eramangarritasuna mugatzea eskatzeko edo tratamenduari aurka egiteko, pgaraikideak@tabakalera.eus helbide elektronikora idatziz bidalitako eskaeraren bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo eskumena duen beste edozein kontrol-agintaritzan, bereziki bere eskubideak baliatzean gogobetetzea lortu ez badute.

11. IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartzean, hautatutako onuradunek berariaz ematen diote baimena Tabakalerari (i) dagozkion bitarteko teknikoen bidez (argazkia, bideoa, etab.) erregistratzeko bere irudia; eta (ii) irudi horiek eta horien izena Tabakaleraren webgunean eta/edo beste edozein euskarri ukigarri edo ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren kolaboratzaileen kontrolpean, hori guztia oinarri hauen xede diren laguntzak zabaltzeko eta horiekin hornitutako proiektuak gauzatzeko helburu bakarrarekin. Baimen hori ezezta daiteke.

TABAKALERA



12. OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezte hutsagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.

Info +: medialab@tabakalera.eus

www.tabakalera.eus

**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**
—

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**
—

**INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE**
—

tabakalera.eus
—